



12/2020 EBAZPENA, EKAINAREN 1EKOA, FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ ARTE GRAFIKOETAKO LAGUNTAILEEN LAN-POLTSAREN IZEN-ALDAKETA JAKINARAZTEN BAITA, ETA HARI DAGOKION ZERRENDA ARGITARATZEN.

EAEko Administrazio Orokorrean eta haren organismo autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruzko Gobernu Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 30eko Akordioak xedatutakoaren arabera, lan-poltsei buruzko informazioa eta haien osaera eguneratua eskuragarri egongo dira Administrazioak informazioa zabaltzeko erabili ohi dituen bitarteko telematikoetan.

Funtzio Publikoko sailburuordearen azaroaren 19ko 29/2019 Ebazpenaren bidez, Inprimategiko Laguntzaileen lan-poltza sortu zen.

Lanpostu-zerrendak (LPZ) Inprimategiko Laguntzaileen lanpostua aldatu duenez, gaur egun Arte Grafikoetako Laguntzaileen lanpostua da, eta, beraz, lan-poltzaren izena aldatu beharra dago, LPZn jasota dagoenari egokitzeko.

Funtzio Publikoko sailburuordearen ekainaren 1eko 13/2020 Ebazpenaren bidez, zenbait langile sartu ziren Inprimategiko Laguntzaileen lan-poltzan (Arte Grafikoetako Laguntzaileen lan-poltzan), lan-poltza horretako lanpostu batean zerbitzuak eman zituztelako, eta, beraz, lan-poltzako kideen hurrenkera aldatu egin da.

Horregatik, Arte Grafikoetako Laguntzaileen lan-poltzari dagokion zerrenda berria argitaratuko da bitarteko telematikoen bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu Publikoaren Atarian; hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren organismo autonomoen lan-poltzen atalean (www.euskadi.eus/bolsastrabajo).

Hori dela eta, hau

EBAZTEN DUT

- 1.- Inprimategiko Laguntzaileen lan-poltzaren izena aldatzea, aurrerantzean Arte Grafikoetako Laguntzaileen lan-poltza izan dadin.
- 2.- Arte Grafikoetako Laguntzaileen lan-poltzari dagozkion zerrenda berriak argitaratzea.
- 3.- Lan-poltzako kideen hurrenkera berriak ondorioak izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren organismo autonomoen Enplegu Publikoaren Atarian argitaratzen den egunetik aurrera (www.euskadi.eus/bolsastrabajo).

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 1a.

FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEA